

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

82/2025 Mozioa, urriaren 24koa, "Hotel - Gasolindegia" (Guardia) bus-geralekuan markesinak jartzeari buruzkoa

Arabako Batzar Nagusi hauetako Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Batzordeak, 2025eko urriaren 24an egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

82/2025 Mozioa, urriaren 24koa, "Hotel - Gasolindegia" (Guardia) bus-geralekuan markesinak jartzeari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Guardiako "Hotel - Gasolindegia" geralekuan bi markesina jartzeko, gehienez ere sei hilabeteko epean.
2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote markesina horiek seinaleztapen-elementu egokiak izatea, ordutegiei eta ibilbideei buruzko informazio eguneratua izatea eta irisgarritasun unibertsaleko irizpideetara egokitu daitezela.
3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote, bi markesinak instalatzearekin batera, oinezkoentzako pasabide seguru bat jartzeko, herritarrek alde batetik bestera segurtasunez, azkar eta erosotasunez pasatu ahal izan daitezen.
4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote hiru hilabeteko epean aurkez dezala markesina berriak instalatzeko plangintza jasoko duen txosten bat, zeinetan zehaztuko baitira lekuak, kronograma, inbertsio orokor eta partzialen plana eta markesina berriak jartzeko ezarri behar diren bide-segurtasunari lotutako neurri osagarriak, bat etorritz berriki onartutako Mugikortasun Jasangarriko Planaren 1. ildo estrategikoaren (Hiriarteko garraio publikoaren eskaintza handitu eta hobetzea eta hiriarteko joan-etorrietan garraio-modu iraunkorragoen erabilera sustatzea) 1.1.6. puntuarekin eta, zehazki, Markesina berriak epigrafearekin.
5. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Guardiako Udalarekin adostu dezala markesina horien instalazioa eta finantzaketa.
6. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote erabaki honen berri eman diezaiola Guardiako Udalari.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 24a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA